



## ZUZENDARIA AUKERATZEKO MEREZIMENDU LEHIAKETAREN LEHEN FASEAREN BAREMOA:

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte egindako merezimenduak baino ez dira barematuko. Lehen fase horretan hautagaiek 30 puntu lortu ahal izango dituzte, gehienez, honako atal hauen arabera banatuta:

A): Ikastetxe publikoetako zuzendaritza- edo koordinazio-karguak betetzeagatik

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
A1): Ikastetxe publikoetako zuzendari-kargua betetzeagatik.	0,2 puntu, karguan bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.	Izendapenaren egiaztagiraren fotokopia konpultsatua, dagokion Hezkuntza Administrazioiko organo eskumendunak emana, eta ondokoa jasotzen duena: kargua hartu eta utzi zueneko datak edo, hala bada, karguan jarraitzen duela.
A2): Ikastetxe publikoetan zuzendariorde, ikasketaburu eta idazkari karguak betetzeagatik.	0,1 puntu, karguan bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.	Izendapenaren egiaztagiraren fotokopia konpultsatua, dagokion Hezkuntza Administrazioiko organo eskumendunak emana, eta ondokoa jasotzen duena: kargua hartu eta utzi zueneko datak edo, hala bada, karguan jarraitzen duela.
A3) Ikastetxe publikoetan zuzendari alboko, gaueko ikasketaburu, ikasketaburu alboko, idazkari alboko edo idazkariorde kargua betetzeagatik.	0,05 puntu, karguan bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.	Izendapenaren egiaztagiraren fotokopia konpultsatua, dagokion Hezkuntza Administrazioiko organo eskumendunak emana, eta ondokoa jasotzen duena: kargua hartu eta utzi zueneko datak edo, hala bada, karguan jarraitzen duela.
A4): Ikastetxe publikoetan mintegiburu, departamentuburu edo zikloko koordinatzaile kargua betetzeagatik.	0,025 puntu, karguan bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.	Izendapenaren egiaztagiraren fotokopia konpultsatua, dagokion Hezkuntza Administrazioiko organo eskumendunak emana, eta ondokoa jasotzen duena: kargua hartu eta utzi zueneko datak edo, hala bada, karguan jarraitzen duela.

Oharrak:

Ikastetxe publikoak Hezkuntza Administrazioek sortutako eta mantendutako ikastetxeen sarean daudenak dira.

Betetako karguak azpiataletako bakar batean balioetsiko dira. Hortaz, kargu bat baino gehiago aldi berean bete badira, puntuazioak ezin izango zaizkio bata besteari gehitu.

Beraz, A1), A2), A3) eta A4) azpiataletako puntuak batuz, A) atalean gehienez 10 puntu lortuko dira.



B): Hezkuntzako ikuskari gisa betetako lanagatik:

MEREZI-MENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
Hezkuntzak o ikuskari gisa betetako lanagatik.	0,0625 puntu, ikuskari-kargua betetzen eman duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.	Zerbitzuak eman diren Hezkuntza Administrazioiko organo eskumendunak ziurtatutako zerbitzu-orria. Orriak ondokoak jasoko ditu: Hezkuntzako ikuskari gisa betetako denbora eta destinua. Hura izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, ondokoa jasotzen duena: karguan hasiera eta utzitako datak. Ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuak egiaztatu beharrik izango, ofizioz baloratuko baitira.

B) atalean gehienez 1,5 puntu lortuko dira.

C): Zuzendari izatea aukeratu den ikastetxeko katedradunen kidegokoa izateagatik:

MEREZIMENDUAK	PUNTUA K	EGIAZTAGIRIAK
C) Bigarren Hezkuntzako institutu bateko edo Goi Mailako Lanbide Heziketako institutu espezifiko bateko zuzendari izateko merezimendu-lehiaketetan, Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegokoa izateagatik; Hizkuntza Eskola Ofizial bateko zuzendari izateko merezimendu-lehiaketetan, Hizkuntza Eskola Ofizialeko katedradunen kidegokoa izateagatik; Diseinuko Goi Eskolako eta Arte Eskolako zuzendari izateko merezimendu-lehiaketetan, Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegokoa izateagatik.	1,5 puntu.	Hezkuntzako administrazioaren organo eskumendunak emandako ziurtagiria, Administrazioiko Tituluaren fotokopia konpultsatua edo Aldizkari ofizialeko egiaztagiria, zeinean hautagaiaren izendapena ageri den.

D): Zuzendu nahi duten ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetakoren bateko irakaskuntza zuzenean esperientzia izateagatik:

MEREZI-MENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
Zuzendu nahi duten ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetakoren bateko irakaskuntza zuzenean esperientzia izateagatik:	0,00625 puntu irakasten emandako hilabete oso bakoitzeko, bost urte oso igaro ondoren kontatzen hasita. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango. Irakaskuntzako lehen bost urteengatik ez da punturik lortzen.	Zerbitzuak eman diren Hezkuntza Administrazioiko organo eskumendunak ziurtatutako zerbitzu-orria. Orriak ondokoak jasoko ditu: kargua hartu eta utzitako datak, kidegoa eta espezialitatea. Hura izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, ondokoa jasotzen duena: kargua hartu eta utzitako data eta espezialitatea. Ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuak egiaztatu beharrik izango, ofizioz baloratuko baitira.



Oharrak:

Atzerrian emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagozkien herrialdeetako hezkuntza-administrazioek edo organo eskumendunek emandako ziurtagiriak erabiliko dira, eta ziurtagiri horiek ondokoak jasoko dituzte: zerbitzu-aldiaren iraupena, ikastetxea publikoa edo pribatua den, emandako hezkuntza-maila eta irakasgaia. Ziurtagiri horiek zinpeko itzulpen eta guzti aurkeztuko dira.

D) atalean gehienez 1,5 puntu lortuko dira.

E) Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientziagatik:

MEREZI-MENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientzia gatik.	0,0125 puntu, ikastetxean bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.	Ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuak egiaztatu beharrik izango, ofizioz baloratuko baitira.

E) atalean gehienez ere 3 puntu lortuko dira.

F) Unibertsitateaz kanpoko edozein ikastetxetako ordezkari-organoren klaustroko ordezkari gisa izandako urte bakoitzeko esperientziagatik:

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
Unibertsitateaz kanpoko zeinahi ikastetxetako ordezkari-organoren irakasleen ordezkari hautetsi gisa izandako esperientziagatik.	0,05 puntu Unibertsitateaz kanpoko edozein ikastetxetako ordezkari-organoren klaustroko ordezkari gisa izandako urte bakoitzagatik. «Urtea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek edo hilabeteek ez dute punturik emango.	Ikastetxeko idazkariaren egiaztagiria, non taldeko organo horren kide hautetsi gisa zenbat urte igaro dituen adierazten den.

F) atalean gehienez ere puntu 1 lortuko da.

G): Hizkuntzak jakiteagatik:

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
G1): Irakaskuntzako HE1 edo baliokidea egiaztatzeagatik.	1,5 puntu.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ofizioz egiaztatuko du.
G2): Irakaskuntzako HE2 edo baliokidea egiaztatzeagatik.	5,5 puntu.	
G3): Hizkuntza-eskola ofizialek emandako edozein hizkuntzako -euskara izan ezik- Tarteko Mailaren Ziurtagiriko edo ziklo horren baliokide Oinarrizko Zikloaren Ziurtagiri bakoitzeko:	0,5 puntu.	Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako egiaztagiraren fotokopia konpultsatua.
G4): Hizkuntza-eskola ofizialek emandako edozein hizkuntzako -euskara izan ezik- Goi Mailako Ziurtagiriko edo Gaitasun Agiri bakoitzeko (ziklo horren baliokidea da):	Puntu 1.	



Oharrak:

G1 eta G2 idatz-zatietako puntuazioak bateraezinak dira.

Hizkuntza guztietan bateraezinak dira G3 eta G4 idatz-zatietako puntuazioak

G1), G2) G3) eta G4) idatz-zatiak batuta, G) atalean, gehienez ere, 6,5 puntu lortuko dira.

H): Unibertsitateko tituluengatik:

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
H1): Doktore Titulu bakoitzagatik.	Puntu 1.	Doktore tituluaren ziurtagiri akademikoa, fotokopia konpultsatua, edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.
H2): Lizentziatu, arkitekto, ingeniari edota ondorio guztietarako legez horien baliokidea den titulu bakoitzagatik.	0,75 puntu.	Dagokion tituluaren ziurtagiri akademikoa, fotokopia konpultsatua, edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.
H3): Diplomatura, ingeniaritza tekniko, arkitektura tekniko edo legez horien baliokidetzat jo diren beste titulu batzuegatik edo lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritza lizentziaturako lehenengo zikloari dagozkion ikasketengatik..	0,5 puntu.	Dagokion tituluaren ziurtagiri akademikoa edo fotokopia konpultsatua, edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Lehen zikloari dagozkien ikasketen kasuan, ikasketa horietako irakasgai guztiak gainditu izanaren ziurtagiri akademikoa.
H4): Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuak araututako master-titulu ofizial bakoitzeko.	0,25 puntu.	Dagokion tituluaren ziurtagiri akademikoa edo fotokopia konpultsatua, edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.

Oharrak:

Titulu unibertsitarioen katalogo ofizialean ageri diren tituluak besterik ez dira balioetsiko.

H3) atalean ez dira balioetsiko H2) atalean balioetsi diren lizentziatura, arkitektura edo ingeniartzako lehen zikloetako ikasketak.

H1), H2) H3) eta H4) azpiataletako puntuak batuta, H) atalean gehienez 2 puntu lortuko dira.



D): Ikastetxeen kudeaketa eta zuzendaritzarekin lotutako prestakuntza-jarduera eta argitalpenengatik:

MEREZIMENDUAK	PUNTUA K	EGIAZTAGIRIAK
I1): Hautagaiak berak bakarrik egindako eta ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza nahiz zuzendaritzarekin lotutako argitalpen bakoitzeko.	Puntu 1.	Argitaratutako jatorrizko idatzia aurkeztuko da. Euskarri berezietan argitaratutako materialei dagokienez, hala nola, bideoak, CD-ROM, etab., argitalpen horiekin batera joan daitezkeen dokumentu inprimatuak aurkeztu beharko dira (karatulak, helburuak eta edukiak azaltzen dituzten liburuxkak, inprimaketak, etab.). Formatu elektronikoan bakarrik datozen argitalpenen kasuan, txosten ofizial bat aurkeztuko da eta berorretan organismo emaileak argitalpena datu bibliografikoen basean agertzen dela ziurtatuko du. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, aldizkaria, liburukia, urtea eta hasierako nahiz bukaerako orria.
I2): Hautagaiak beste hainbat lagunekin batera egindako ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotutako argitalpen bakoitzeko:	0,5 puntu.	
I3): Hautagaiak irakasle, txostengile edo koordinatzaile gisa jardunda, ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotuta, herri-administrazioek edo unibertsitateek antolatu edo homologatutako 20 orduko (gutxienez) prestakuntza- edo ikastaro-jarduera bakoitzeko:	Puntu 1.	Dagokion organismoak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria, kredituen edo ikastaroak irauten duen ordu kopurua berariaz jasotzen duena. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da atal honetan puntuaziorik lortuko. Etengabeko prestakuntza-planaren barruan dauden edo hezkuntza-administrazioak onetsita dauden jardueri dagokienez, berariaz jaso beharko da jarduerak aipatutako planaren barruan daudela edo hezkuntza-administrazioak onetsita daudela.
I4): Ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotuta, herri-administrazioek edo unibertsitateek antolatu edo homologatutako 40 orduko (gutxienez) prestakuntza- edo ikastaro-jarduera bakoitzeko:	0,5 puntu.	

Oharrak:

Ez dira inola ere baloratuko helburutzat titulu akademiko, master edo bestelako graduatu ondoko titulazio bat lortzea duten ikastaro edo irakasgaiak. Halaber, ez dira baloratuko helburutzat Espezializazio Didaktikoaren titulua edo Pedagogia-Egokitzapenaren ziurtagiria lortzea duten ikastaro edo jarduerak.

I1), I2), I3) eta I4) azpiatalak batuta, I) atalean gehienez 3 puntu lortuko dira.